



Kostaldekoko Done Jakue Bidea



Ibilbidearen
mapa

Ibilbidearen
profila

Ibilbidearen
deskribapena

Erromesentzako
aterpea

Ostatuak

Aia Zarautz

Jatetxeak

Aia Zarautz

Turismo
bulegoa



ETAPA
Aia
Orio → Zarautz




HASIERA





ETAPA
Aia
Orio → Zarautz

6,8 km



➔ Orio eta Zarautz arteko etapa benetan laburra eta atsegina da, eta oso hurbil dauden itsasertzeko bi herri lotzen baditu ere, zati handi batean Aia udalerrian barrena igarotzen da. Udalerri horren gune nagusia itsasertzeko bideak egiten duen ibilbidetik kanpo aurkitzen da gaur egun, Pagoeta mendi magalean.

Erdi Aroan Donostiatik iristen zen itsasertzeko bidea San Nikolas elizaren atarian bukatzen zen, Orioko Kale Nagusiaren bukaeran, Orioko portu zaharra zegoen tokian. Puntu horretan, txalupa batek ibaiaren beste aldera pasatzeko zerbitzua eskaintzen zuen, eta erromesak salbuetsita zeuden, erregearen aginduz, zerbitzu horrengatik eskatzen zen marabedi bateko kostua ordaintzetik.



Orio



Orio

Itsasertzeko komunikazioak muga horiek izan zituen urte luzez, azkenean, XIX. mendearen erdialdera, bi ibaiertzak lotzen zituen lehen zubia eraiki zen arte. Azpiegitura harekin jarraipena eman nahi zitzaion itsasertzeko errepide berriari, gaur egun N-634 denari, eta trenbidearekin batera Gipuzkoaren artikulazioa eta garapen modernoa bultzatuko zituela espero zen. Halere, zubiaren historia ezbeharrez josita ageri zaigu; izan ere, eraiki eta oso denbora gutxira, azken Gerra Karlistan (1872-1876), leherrarazi egin zuten. Gatazka bukatu ondoren berriro eraiki zuten, baina antzeko patua izan zuen 1936an, gudaroste frankistek Donostia hartu ondoren, armada errepublikanoak zubia dinamitaz leherrarazi baitzuen Bizkai aldera erretiratu eta etsaiari aurrera egitea zaildu ahal izateko.



Talaiberri



Oribarzar - Talaimendi

Zubia zeharkatu ondoren N-634 errepidearen ertzetik ehunka metro batzuk egingo ditugu. Ibaiertz hauetan aurkitzen ziren garai batean Orioko ontziola entzutetsuak. Ontziola haiei esker, ontzigintza-gune garrantzitsua izan zen Orio mendeetan zehar, eta XVII. mende hasieratik aurrera gerraontzi eta galeoi handien eraikuntzan espezializatu zen. Aiako basoetako egurraren eta inguru hauetako burdinoletan ekoiztako burdinaren ugaritasunak ahalbidetu zuen industria horren indartzea. Garai hartako zenbait burdinola bisita daitezke gaur egun, besteak beste Agorregikoa, Pagoetako parke naturalaren barruan aurkitzen dena, Aia udalerrian.

HASIERA





Bi ibaiertzak lotzen zituen txaluparen moilaren parera iristean Aitzondo jatetxea ikusiko dugu. Zudugarai izeneko inguru honetatik Orioko kai berrira doan errepidea abiatzen da. Puntu honetatik oso gertu, San Pablo ermita ikusiko dugu, eta ermitaren ondoan gora egiten duen pista bat aurkituko dugu; pista horretatik desbideratuko gara gure ibilbideari jarraitzeko. Sartuak gara jada Aia udalerriaren mugen barruan; izan ere, juridikoki *unibertsitate gisa* sailkatuta dagoen herria da Aia. Hitz hori erabiltzen zen historian hainbat herrixka eta jauntxo elkartzen zituen herri-antolaketa adierazteko; hori zen herriak antolatzeke eredu zaharra, hiriena baino lehenagokoa. Hain zuzen ere, dokumentuetan aurkitzen diren Aiari buruzko aipuak oso antzinakoak dira, eta iritsi zaizkigun erreferentziarik zaharrenak 1025ekoak dira: urte hartan Aiako hainbat behi eta sagasti Aragoiko San Juan de la Peña monasterioari eman zitzaizkiola aipatzen da.



Txakoli



San Martin de Tours

Bideak mendi-hegaletik jarraitzen du, ibaiaren bukaera mugatzen duten azken muinotxoaren gainetik, ehunka metro batzuk harago bidezidorra jaisten hasten den arte. A-8 autopistaren zubiaren azpitik igaro ondoren, bidea Orioko kai berrira doan errepidearekin elkartzen da, ibaiaren beste aldean aurkitzen den kirol-portuaren parean, hain zuzen. Oribarzar hondartza eta badia txikian aurkitzen gara; garai batean haxe zen Aiaren portuetako bat.



Talaimendi



Talaimendi

Leku honetan errenteria bat aurkitzen zen antzina, inguruetakoa merkataritza-trafikoa zentralizatzeaz eta fiskalizatzeaz arduratzen zen establezimendu bat, Zarauzko jaunarena.

Gure ibilbideak Oribarzar izeneko ibar txikitik egiten du aurrera, eta ilara ordenatuetan ezarritako txakolin-mahastien ondotik Talaimendi mendirantz igotzen da. Izenak argi adierazten duenez, mendi honetan aurkitzen zen garai batean Zarauzko talaletako bat; handik aritzen ziren zerumuga begiztatzen, balearik ikusiz gero arrantzale ausartei ohartarazteko, huraxe baitzen herritarren aberastasun-iturri garrantzitsuenetako bat.

Bidea gailurrera iristen den tokian kanpineko sarrera, Talaiberri txakolindegia eta landa-turismoko etxe bat aurkitzen dira, eta puntu horretatik ezkererantz abiatzen den pista batek Ibaletako San Martin ermitaraino eramango gaitu. Ermita hau mugarri aipagarria da egiten ari garen bide honetan; izan ere, Tourseko San Martinen izena darama, erromesen eta ibiltarien artean izugarrizko garrantzia izan duten izenetako bat, alegia.



Zarautz



San Pelaio

Talaimendiren inguruek ikuspegi zoragarriak eskaintzen dizkigute: Getaria eta Zarautz arteko paisaia guztiak eta Iñurritza errearen bokaleko padurak ikus ditzakegu, baita Zarautzen ezaugarri garrantzitsuenetakoa den hondartza zabala ere. Bidezidor atseginetan barrena, Zarauzko herrigunerantz jaisten hasiko gara. Bidean Agerrezarra baserriaren aurretik pasatuko gara; udalerrri honetako baserririk zaharrenetakoa da, orain zaharberrituta badago ere. XV-XVI. mendeetako eraikina da, eta etxaurrea egurrezko egitura batek osatzen du; alboetako hormak, berriz, karez eta harriz eginak dira, eta baserriaren antzinatasunaren erakusgarri diren gotiko estiloko zenbait kofadura gordetzen dituzte oraindik.

Aurreraxeago N-634 errepidea zeharkatuko dugu, eta ondoren Iñurritza erreka, San Pelaio edo Iñurritza izeneko auzora iritsi arte. Auzo honetan izen bereko ermita bat aurkitzen da, eta berau da Zarauzko zaindari edo patroia. Egungo eraikin neoklasikoa XIX. mendearen erdialdekkoa da; hark ordezkatu zuen Iñurritzaren bokaleko hareatza eta dunen artean, itsasertzetik oso hurbil, garai batean zegoen ermita zaharra. Itsasoaren eta haizearen eraso bortitzek erabat hondatu zuten eraikin zaharra, eta, ondorioz, eraikin berria gaur egungoa kokatzen den lekuan egitea erabaki zen. Dena den, ermita zaharra leku hartan eraiki izana ez da apeta baten ondorioa.

Kondairak dioenez, San Pelaioaren imajina agertu omen zen hondartzan, ekaitz izugarri batek bertara botata, ziurrenik hondoratze tragiko batetik onik ateratako gauza bakarra. San Pelaio, galiziarra jaiotzez, Galiziarekin eta Santiago bidearekin estuki lotutako santua da, Santiagoren antzera. Zarauztarrek San Pelaiori egiten dioten gurtzak lotura zuzena du itsasoarekin, eta Galiziara itsasoz iristea helburu zuten erromesaldiekin erlazioa daiteke. XII. mendearen erdialdean Santiagora zihoazen erromesen gida gisa idatzitako *Codex Calixtinus* ospetsuak berak ere, Santiagora itsasoz egiten ziren erromesaldien garrantziaren lekukotza ematen du.

San Pelaio auzoa atzean utzirik, Zarauzko alde zaharrerantz eramango gaituen bidea hartuko dugu; gaur egun etorbide gisa eraldatuta dago, eta Kale Nagusira ateratzen da, antzina herriko bide nagusia izandakora, alegia. Kale honetan barrena Erdi Aroko hainbat elementu aurkituko ditugu. Aipagarriena, zalantzarik gabe, Torre Luzea da, Euskal Herri osoko hiri-dorretxeen artean ondoen gordetzen direnetako bat, ziurrenik. Baliteke bere jauregi itxurari esker salbatu izana XV. mendearen erdialdean dorretxe gehienek jasandako eraisketa eta suntsiketetatik. Halere, gordetzen dituen zenbait eraikuntza-elementuk argi erakusten dute hiri-dorretxe



Torre Luzea



Zarautz



dotore hau gotorleku ere bihur zitekeela, halako beharrik izanez gero. Torre Luzearen parean Torremotxa dorretxea aurkitzen da, gaur egun etxe hiritar bilakatua. Bi dorretxeek gordetzen zuten antzina Kale Nagusian aurkitzen zen hiriaren ekialdeko sarrera.

Kale honetako eta alde zaharreko beste zenbait kaletako eraikin batzuk ere gerlari, santu, merkatari eta erromesen garai haietako lekuko isilak dira, besteak beste Musika Plazako Makazaga etxea, edota Zigordia kaleko Dotorekoa etxea. Kalearen beste muturrean, hiriaren irteera markatzen duen lekuan, beste dorretxe bat aurkitzen da, Kanpantorrea izenekoa. Eraikin hau, ondoan duen elizaren kanpandorrea ez ezik, hiriko kontzejuaren egoitza edo udaletxea ere izan zen mendeetan zehar. Urte askotan, gainera, Kanpantorreako udalak Zarauzko jauntxoaren handinahikerien aurrean kontra-botere indartsu gisa jardun zuen. Izan ere, Zarauzko jauntxoak Santa María la Real parrokiako ugazabak ziren XIV. mendearen hasieratik, eta haien dorretxea, egun desagertua, hemendik oso hurbil aurkitzen zen. Bertatik ezarri zuten Zarauzko jauntxoek beren nagusigoa. Oñazarren bandoaren aurka Behe Erdi Aroan izandako mendeetako liskarretan, heriotza eta suntsiketa ugari erein zuen Ganboatarren bandoaren buruzagitzako leinu nagusietako bat ziren zarauztarrek. Gaur egun, dorretxea aurkitzen zen lekuaren ondoan altxatzen da Zarauzko jauntxoaren jauregi ikusgarria, Narros jauregia deitua, XVI. mende hasierako eraikina.



Santa María la Real



Zarautz



Villa Munda



Iñurritza

Kanpantorrea Zarauzko Arte eta Historia Museoaren egoitza da gaur egun. Eraikin honen eta alboko Santa María la Real parrokiaren zorupean X. eta XIV. mendeen artean toki horretan eraikitako elizen aztarnak ikus ditzakegu, baita inguruko hilerriaren eta erromatarren garaiko hainbat eraikuntzaren arrastoak ere. Erdi Aroko aztarna horiek argi aski erakusten digute 1237. urtea baino lehen, Zarautz hiriaren sorrera baino lehen alegia, komunitate handi bat bizi zela jada itsasertzeko inguru hauetan.

Santa María la Real parrokiak baditu Erdi Aro garaiko beste hainbat elementu artistiko, denak ere interes handikoak. Eraikinaren aurrealde handia eta estilo gotikoko zenbait leihate ez ezik, aldare nagusiko Ama Birjinaren irudia ere azpimarratzekoa da. Halere, are aipagarriagoa da Zarauzko jauntxoaren mausoleo gotiko handia, baita hilobi horretan bertan aurkitzen diren zenbait elementu ikonografiko garrantzitsu ere, besteak beste San Migelen irudia, balantza eskuan duela, hildakoen arimak pisatzeko jarreran. Irudi hori venera edo vieira maskor baten irudiarekin elkartuta dago, Donejakuerako erromesaldien sinbolo den maskorrarekin, alegia. Motibo ikonografiko horrek sortuko zuen ziurrenik mausoleo honen inguruko kondaira, hots, “Erromesen Hilobia” izatearena.



ERROMESEN ATERPETXEA

Udaran irekia

Informazio gehiago:
Zarautzko Turismo Bulegoa
turismoa@zarautz.org
Tel.: 943 830 990

Ostatuak

Aia Zarautz

Jatetxeak

Aia Zarautz



TURISMO BULEGOA

Nafarroa kalea, 3
20800 Zarautz
Tel.: 943 830 990
E-maila: turismoa@zarautz.org
www.turismozarautz.com

ZARAUTZ

